

## **PSIKOLOGIA FAKULTATEKO GELA ETA ARETOAK ERABILTZEKO ESKAERA PROZEDURA**

### **XEDEA ETA IRIZPIDE OROKORRAK**

Psikologia Fakultateak baditu gure Zentroko Gradu eta Master Tituluak irakasteko gelak. Hala ere, jarduera akademikoarekin zerikusia duten beste helburu batzuetarako erabil ditzakete, batzuetan, bai unibertsitate-komunitateko kideek bai kanpoko pertsonak. Horrelakoak ez diren beste jarduera batzuetarako, Campuseko espazioak daude, erregelamendu honek arautzen dituenak:

<https://www.ehu.eus/eu/web/gipuzkoa/espacios-exteriores>

Dokumentu honek ikastetxeko gela eta areto horien erabilera arautzen duen prozedura biltzen du.

Zentroko ikasgelak Psikologia Fakultateak kudeatzen ditu, baina baditu ere Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatearekin partekatutako espazioak ditu, hauek Areto nagusia, Gradu Aretoa, Batzar Aretoa eta Hemizikloa dira. Gela horiek erabiltzean, tesien defentsak eta irakasleen plazak lehenetsiko dira, beste jarduera batzuen aldean.

Psikologia Fakultateko kideek (irakasleak eta ikertzaileak, administrazioko eta zerbitzuetako langileak eta ikasleak Ikasleen Kontseiluko ordezkarien bidez) eta kanpoko erakundeek eska ditzakete gela eta areto horiek.

### **ESKAERA PROZEDURA**

Espazioak erreserbatzeko eskaera idatziz egin beharko da, horretarako sortu den inprimaki eredu edo baliabide telematikoa erabiliz, eta bertan berariaz zehaztuko da:

1. Jardueraren arduradunak identifikatzea.
2. Jardueraren eguna eta ordutegia, bai eta aurreikusitako parte-hartzaile kopurua ere. Ikasleak tartean baldin badaude gomendatzen da jarduerak eraginik ez izatea irakaskuntzan.
3. Jardueraren deskribapena eta programa.
4. Konpromiso formala:
  - a) Normaltasun osoz jardutea.
  - b) Esleitutako lekua jarduera egin aurreko baldintzetan berrezartzea, betiere arazoizkotasun-irizpideak betez, gehienez ere 24 orduko epean, non eta ezohiko arazoiek ez duten eskatzen lekua lehenago berrezartzea.

c) Berriaz bere gain hartzea jarduera antolatua onduz sor daitezkeen kalteen erantzukizuna, bereziki, jarduera egitearen ondorioz gerta daitezkeen gauzei eta pertsoneri eragindako kalteen erantzukizun zibila.

d) EHUren irudi korporatiboa/instituzionala behar bezala erabiltzen dela bermatzea.

e) Hala badagokio, bi hizkuntza ofizialen (euskara eta gaztelania) erabilera bermatzea.

f) Eraikuntzaren Kode Teknikoaren (314/2006 ED) edo indarrean dagoen araudi aplikagarriaren araudian adierazitako okupazio-dentsitatearen balioak uneoro betetzea, eta beharrezko neurriak hartzea erabiltzaileen, okupatzaileen edo parte-hartzaileen kopurua eta kalitatea kontrolatzeko, pertsona horiek esparruaren barruan eta kanpoan portaera egokia eta jarduera egokia izateko, eta pertsonen eta ondasunen segurtasuna kalteku dezaketenen arriskuak sortzea saihesteko.

#### ESPAZIO HORIEK ERABILTZeko ABONAMENDUA

Beren kudeaketa-karguaren, irakaskuntza-enkarguaren, lan-funtzioaren edo beren izaeraren arabera jarduerak antolatzen dituzten Psikologia Fakultateko kideek ez dute inolako kontraprestazio ekonomikorik eman beharrik izango espazioa edo lokala erabiltzeagatik, baldin eta ekintza unibertsitateko jardueren barruan badago.

Aurreko paragrafoaren esparruan jarduten ez duten unibertsitate-komunitateko kideek, eta unibertsitateaz kanpoko pertsonak, unibertsitate-agintaritzaren eskudunak ezarritako tarifei dagokien diru-zenbatekoa ordaindu beharko dute.

#### BEHARREZKO BALDINTZAK:

1. Eskabidea betetzea.
2. Eskatutako lekua izateko Dekanotzaren baimena lortzea.
3. Pertsona bat edo batzuk, identifikatuak eta legitimatuak, prozedura hau eta jarduera egiteko baldintzatuko den beste edozein alderdi betetzeaz arduratzea.

Psikologia Fakultateak jarduera egiten den edozein unetan bukatutzat eman ahal izango du, baldin eta eskabidean emandako informazioaren arabera egiten ez bada, baimena emateko ezarri ziren baldintzak betetzen ez direla antzematen bada edo orden publikoa aldatzen bada.